Txanpon zaleak

Bakoitzak berea

Larunbat astelenak ez dira txarrak [illegible] Tolosa'n laster esango detana [illegible] ikasteko. Ona emen aste bete [illegible].

—Egun on.

—Baita zuri ere. ¿Zer zabiltza?

—[illegible] diot. Oker txiki bat degu.

—Txarri bat [illegible] edo alakoren bat?

—Ez jauna, ez. Etxekonekokin. Au [illegible] orrek mingain luzea du ta joan dan astean gureak gure sailetik [illegible] uxatu gitulako [illegible] esan dizka.

—¿Ori al da dena?

—¡Bai zera! Gurea ere sutan jarri zan eta kaskarreko bat eman zion.

—Gizona, orrenbeste nai litzake.

—Bai, baño, kaskarrekoa uste baño aundixeagoa eman eta ordu bete kordenik gabe egon zan.

—¿Sendatu al da?

—Bai, jauna, bai. Orain papeletak sartu dizkigu.

Beorrek ikusi bearko du zer egin litekean.

—o—

Gertaera orren ondorean etxekarren besterik joan dan astekoak. Geienak ekartzen dute. Baserritarrak bitako [illegible] ezin aterazi edo jardunean asi ezkero nola bukatu ez jakin; eta geienak askenako oietakoak izaten dira, [illegible] mintzatzen diran tokin.

Argitik entzun izan ditut amaika [illegible] ikusgarri.

Ara bat.

—¿Infernutik al zatoz?

—Naiko infernua. Errenta ordaintzera joan naizenean nagusiarentzat [illegible] sartzen zeuden, eta lagunduko ai [illegible] esan didate. ¿Zer egungo zuen? Ali banaiz asi, ordu biko lana [illegible] zan dena, baño Jainkoak dakin [illegible] beltza biriketan sartu degu.

—Orlaras gaur amaiketako aundia [illegible] zendun?

—Ala bada... Beti bezela gazta, ogia ta ardua.

Ara bestea.

—Gaur orratik lotsatu naiz.

—Arrazoiren batekin?

—Naigo zun. Arena geien geienera beste aldera biurtu ta egiña dago. Ela asko jotzera, multa. Gaurkoa latza zan: multa ta lotsa. Nagusiangana arkume batekin joan naiz eta txikitxoa dala esan dit. Ixil ixilik irten, zerkausira joan, nerae saldu eta zegoen gizenena erosi det. Norea etzan txarra uste baño. Orain eman detanak ez ditu ez nereak zitun baño gitxurdin gurigoak izango.

Ara bestea ere.

—Gauza bat jakin nai nuke.

—Ia zer dan?

—Ni beon eponiokoa naiz, etxean denak, semetatik asita, eta nagusiak esan dit, botoa ematen ez badiot, arek etzalan bearrik bere etxetan ez dula ta bialí egingo naula.

—Esango zenion katolikoak gerala eta zuk ere beste gauzarik izan nai ez dezula.

—Ori bada; nik esan diot baño katolikoak berak bakarrik emen dira noski.

—Eta ¿sinistu al dizu?

—Ez, sinistu ez; ikusten det beok damaikiten bidea okerrekoa izango ez dala, baño etxetik bialtzen banau?...

Zabala jauna: uste detanez, zuk maisterra nagusiarekin ona izan dala esaten dezu musua ikatzez beztu ondorean txurrut batekin ordaintzen dezunean; ilgik biurtu gabe arkume gizena ematen dizunean; botoa zure asmoan aldez ematen dunean.

¡A gizajoa! Garai oiek joan ziran. Eta joan ziran joan bear zutelako, Kristauen artean orrela ezin litekelako.

Maisterrak nagusiari errenta zor dio. Besterik ez. Errenta ordaindu ezkero, kito. Bata gizon eta bestea gizon. Maisterrak eta edozeinek ongi ematen du lotsagabekeririk gabe, apal, zintzo dabillenean, gañera kristauа bada ala bear du. Gizon arroa urruti. Baño kristau bideak bere egintzak baditu nagusientzat ere; eta nagusiak ere kristauak badira bere mendean daudenak gizon bezela ezagutu bear dituzte.

Baño, itxoin. itxoin; oraindik beste bi iru zatitan zerbait esan bearra daukat eta.

JON ANDONI

Nekazari-arazoak

Nagusi ta maistarren arteko artu-emanak

Gipuzkoa'ko nekazari anayari del maisterr eta bietz bietzako bat egitera nator gaurko onetan. Iru urte ontan ainbeste salaitza erabili erazi duen nagusi ta maisterren arteko legea ontzat eman dute Madrid'ko Aldun-etxean. Bi «Gobierno» lurrera bota zituen legea zan au; oraingo onek, eta bertako Nekazaritzako Ministro, Jimenez Fernandez'ek arpegi eman duelako, aurrera illaren lenengotik iñorra datorren illaren lenengotik izango da. Lege au dala bide errenitak berritu bearko dute, eta oyek berriztu eta erabakitzeko, Bergara, Azpeitia, Tolosa eta Donostia'ko Epaikari nagusik (Juez de Primera Instancia) buru dirala jarriko dira «Jurado»ak. Orain jartzen diran errentak urtietarako izango dira.

Lege onek agindu en asko badira bere barrenean, baño baita ere, bakarren bat edo beste, ezta antzekoak, eta oyen bitartez, bailiteke, zuek, maisterraren nekazari anayak, errez erortzea berian. Jakiña da, maixterren tartean bestiaxe, nagusi tartean onak, gizon zuzenak, kristautasunak eta bere aginduak esaten duen ozeta, beren eta maisterren arteko gora berak erabiltzen dituztenak badirade[illegible].

Baño, baita ere, jakina da, badirala gizatasuna eta kristautasuna alee batera utzi ta beren eta maisterren arteko artu emanetan alduten guztia egiten dutenak. Orrelako oker oyetan ere, zi eraintzen, nekazari anaya, emen dezu zuri laguntzeko, Gipuzkoako Eusko nekazari Bazkuna.

Benere baño lagunt[illegible]sun eta alkartasunarena orain, premi geyago dezu; bada bakarrik baldin baza[illegible]biltza errez [illegible] zaituzte.

¿Ikusi dezu benturaz, zer gertatzen [illegible] Mayatzeko egun sartzen [illegible] aldean batin edo persona asko dabillen bidera irtetzen duen [illegible] bati? Oiñ azpian zapaldu eta [illegible]. Bada au bera gertatu liteke zurekin ere.

Ez bada egon lo; ez etxean sartuta [illegible]; argi eta garbi jokatu bizarean [illegible]. Nagusi maltzur askoren atzaparretan erori etzaitezen, bertara sindo nekazari anaya, lege berri orren bidea [illegible] eskubideak gorde eragiteaz; eta orretarako, biderik onena, Eusko Nekazari Bazkuna.

Negargarria izango litzake, eta biotza urratuta utziko lizkiena, ainbeste jan egin, ierdia isuri, eta biar bada, askotan eta askotan zure eta zendi (familiaren) ozasuna berian galdutzeraño, zure eta zurreko[illegible]en jayotetxea, utzi biar izatea zure eskubideen edo laguntasun gabez, eta negarrez alde egitia.

Urrintzen da bada garaya, zure alderdiya zaitutzeko, ¿Bazkidetua zera? Zure ordez [illegible] izendu zaitez, ¿Bazkidetu gabe zaude? Alderdi azkarren bazkidetu zaitez, eta lagunduko zaitzu. Argi eta garbi jokatu nekazari anaya, Zaitu zure eskubideak eta orretarako etorri Eusko Nekazari Bazkunera.

IDAZKARITZA

Asterik aste

bertsotan

Qué dice...?

Donostia'ko Udaletxean
lengoko egun batean
ikusi nitun ari zirala
izketan, gogo betean
lau baserritar euskel jatorrak,
Ostolaza alen artean
ari zitzaion Quintilliano'ri
bestienak entzutean
euskeratikan erdel biurtzen
interpretien antzean.

Baserritarrak zion
amorruz beterik:
—Gure auzo guzia
dago bildurturik
ugaldea berriro
degula ikusirik.
Egin ba obra, oiek
al dan azkarrenik,

Quintiliano Perez'ek;
—¿Que dice el casero?
Ostolaza'k erderaz
esan dio gero.
Ta alaxen ari bear
emien egunero
errikoen izkuntza
ez jakin ezkero.

Perez asko ditugu
errian agintzen,
gure izkuntza entzunda
«Qué dice...?» galdetzen.
«Qué dice...?» galde baño
ez alaizu iruitzen
obego litekela
saiatu ikasten.

Urrezko arobia?

Urnieta'ko erria
daukagu nastuta;
dirua barra-barra
dabil askatuta.
Urrezko arrobi bat
dute arkitu ta
laster ango jendeak
dira aberastuta,

Nundikan ote dator
diru ori ? Nundik?
Ajola gutxi dio
gauza orrengatik.
Secretaioak daki
sortutzen nun-naitik...
Ez ote ditu jarri
bere patrikatik?

LIERNI

ANDEREKIKOAK

Gure arazoaz

(Ira'ri)

Zure erantzunaren bear-izan bat bezelako zerbait biotzean nabaitzen nuala nengon aldi ontan. Elgoibar'tar etxekoandre zintzoak ere zerbait orrolako izango zuan, eta bereaz atera da. Erakarri zaitu, Pozaren-poz[illegible] ni.

Ez dezu beaz egokia uste, nere asmoaren zuzendaritza Donosti'ko E. A. B.'ri eskeintzea? Ara zergatik.

Gaben inguruan Gipuzkoa osoan jaiotzen diran eusko-langille ta abertzalien umetxoai ain egoki ta eguro janzki-ozartxoak banatzen dakien bazkun orri, uri-buruko ez eze uri-biotzeko ere deitu lezaikela uste izan det, eta aintzat artu ere egin det baita. Zuek ikusita, ederki ikasi degu uri txikietakoak, gureetan on zaigun eraz beste orrenbeste egiten. Baita aurten Donostiarrai zertxobait laguntzen ere bereiek ori egitea agindu digutelako. Nagusitasunez agindu digute, eta geienok erantzun ere baita agindua pozik beteaz.

Orrela leike asko geiago beste arazoetan ere. Badakizu uri txikitxoetan notin gutxi artean oi bezela, agitz gai gutxi izaten dala. Batzordeko asko ta asko li dira beren gain ibiltzen ez dakitenak, eta iñork irakatsi ezkero, zerbait egin naiez diranak. Abel, irakatsi, lagundu, agindu egin bear. Eta uri aundietan onetarako gai diran geiago, mundik geiago oi dalako. Orrengatik jo nuan donostiarretara zuzendaritza eskeintzen.

Bizkaiko «Kristiñau-ikasbide-egunas» ez da ez Bilbao'tik zuzendutakoa. Egia diozu. Baña ezin diteke orrela izan ere. Zornotza'ko JAUNGOIKO-ZALE bazkunak eratzen duana da-ta. Bazkun orek urteoro toki berrian egiten duan jai eder goralgarri au eredutzat artu det.

Guk ezin gindeke oraindik beintzat, eta ain aldi laburrez, ain jai osorik antolatu; baña orren antzeko zerbait bai, ta urteoro uri guzietan egiten dala, oldoetu baño zenbaterañoko lan ederra litzaken. Iñor baño obeto konturatuko zera zu onetaz.

Eta gauz onetan bezela, egin litezken beste askotan zuzendari ta irakasle egingo digun batzorde-buru bat izan ezkero, ainbestek bere izena eman duan E. A. B.'k Aberri aldez egin dezake lan aundi ugaria, aintzat artzekoa da.

Jaungoikoa lagun, au azaltzen jarrai nai nuke, zuen laguntasun zintzoa izango dedan uste osoz. Ainbeste ta ainbeste emakume abertzale gerala ta ezer gutxi egiten degula ikustean, tamaltsu samiņik askotan egoten naiz, bai egin genezakegunaz oldoztean ere.

Ara guk egingo degun ekistar ikasbide egunas aurtengoa. Uste det Elgoibar'tarrak ere onetan dirala.

Goizetik Jaunartu ta meza nagusia entzun ondoren, asterkeia Batzokian. Ez degu sariketarik, (zerekin ere ez degu baña) erri txikietan elkar minberatzeko oi diralako. Ondoren dakitenak, bakoitzak bere mallan aipamen berezia izango dute sari ta poskarri. Arratsaldetik jai bereala baita, antzezki ta itzaldian. Onetarako erderatik artuta «Taruzixi deunas» euskeraltzen ari naiz, antzerki au jai orretarako egokienetako bat uste det ba.

Ondoren ume talde guziaz argazki eder bat aterako degu ta ARGIA'ra bidaldu, gero umetxo bakoitzari gure asteoroko onen zenbaki bana beren argazkia emateko. ¡Bazeoki zenbaterañoko poza deuden beren argazkia izparringian etorriko dala ta! Txindiltak eskoñila baño poz aundiagoa dira.

Emen ari gera ba egun orretarako poza.

Eta... esan bearrik ez irakurtzen nazuten beste emakume guziai ere. Ea bakoitzak zuen errian zertxobait orrela. Gutxi bazerate gutxi, asko bazerate obe. Ekin! Asitzea lenengo, gero geiago. Jaungoikoa lagun eta aurrera!

Erri batzutan ez dute emakumak arazo abetan sartu bearrik gu baño obeto ta zintzoago lan abek euskeldunen artean euskeraz egiten dakizkiten apaiz jaunak dituztelako; baña beste askotan... Nik besin ondo dakizu.

Baña marmarketak utzi, ta guazen geron lanera.

TENE

Milagroa zer da

Egun batez iru gazte, kaiku samarrak, jaun agurgarri bat ikusi zuten beren aldera zetorrela ta alkarrekin itz batzuk trukatu ondoren lotsagabeena joan zitzaion eta galdetu zion:

—¿Milagroa zer dan esango al dit?

—Bueña eman zak, eta berealaxe esango dit.

Bueña eman zuenean, kurrupearen erdi-erdin ostiko eder-eder bat eman zion.

Ordun galdetu zion jaunak;

—Miñik artu aldek?

—Ez txantxetakoa ere, erantzun zion lotsagabeak.

—Milagroa orie izango uan, ostiko ori artu ta ez miñik artzea.

Orain badakik ederki asko zer dan milagroa.

Alde guzietako berriak

Gobernuko berriak

Ez da alako berri izugarririk izan azken astean. Anguera de Sojo jauna gaxorik zan eta osatu-ta asi da berriro lanean. Prensa'rekin artu-emanetatik eten-bearrean arkitu omen da gobernua. Danak berak nai zun bezela egin bear eta esertxotan ere amorrik eman nai ez angoak emengoai. Bitor Karrasko'ri San Hermenegildo'ren Gurutzea ematea erabaki zun eta Oreja Elosegi'ren alargunari Aberriaren eramanako atsekabe-domina.

Ortik kanpora crisis otsak ba dirala oraindik. Ara zer esan zan lengoan Lerroux'ek berak izpariarisi: biar arte aldundegiko ibiltokietan crisis-zuzmurrak bota sortu ta indartzen diran entzutera. Zuzmurrak badirala beraz: bidezkoak diran edo ez, nork daki ori? Betikoakiñ ez al dira izango orain gobernuan dauden gizonak, eta noizbait egi biurtuko ote dira zuzmur oiek? Berriro ere lengoa esan bearko: gauzen zai!

Aldun Batzarra

Aldun batzarraren mende an daude armaen auziko agiri guztiak. Aldunak ba dute agiri oiek aztertu ta ikasteko baimena. Astearen aurren aldera an ibili omen da Casares Quiroga, Azaña'ren laguna bere alde egiteko noski zer ikusi ta ikasiko. Baita Prat socialista ere an ibili da paperak eskuan. Alegiñak egingo dituzte beren lagunak aldezten.

ARGIA'ren zenbaki au irakurleak irakurtzerako noski, auzia gora bera egiña izango da ta erabakia noski Azaña ta errudun diran edo ez.

Politikoak lanean

Auteskundeak ba datozela ta asi dira politikoak bakoitza bere alde itzegiten batean eta bestean.

Gaur zortzi eskerrak eta eskubiak zayatu dira bakoitza bere lanean.

Malaga'n Cervantes antzokian Agrarionak zuten batzarra. Izlari [illegible] nez de Velasco, Taboada aldun[illegible] ra alduna ta Royo Villanova.

Gil Robles berriz Gerona'n [illegible] gosa'n ere izana da. Gauzaz [illegible] bezela ba dijoa, Acción Popular [illegible] go omen da zuzenbide bakarra.

Errege zale eskuitarrak Ca[illegible] go Villarreal'en. Beste batzun [illegible] Calvo Sotelo'k itzegin zun. S[illegible] ca'n Goikoetxea. Eskuitarren [illegible] itz ariñ zan.

Ezkerrak berriz Barcelona'n [illegible] Nicolau D'Olwer buru zala, M[illegible] no Domingo'k itzegin zun. [illegible] ren aurka arriñ zan gogor eta [illegible] Lerroux'en aurka ere.

Martinez Barrio berriz Jerez'en [illegible] da. Ba zitun beste itzlari [illegible] ere. Avila'n Gordon Ordax, beste [illegible] tzun artean. Elizaren aurka [illegible] zun gogor eta Lerroux'en aurka.

Asi dira batzuk eta besteak [illegible] dira noski gelditako puxka [illegible].

Madrid'en egazkiñ b[illegible] etxe batera erori

Egazkiñ bat erori zan lengoan [illegible] drid'en orma bota-ta ikastola [illegible] gon aretora. Orma jotzerakoan [illegible] di egin zan egazkiña ta erdia [illegible] barrenera ta beste erdia kanpora[illegible] ri ziran. Cuatro Caminos'ko [illegible] Murillo kalean gertatu zan.

Egazkiñean, Victor Lopez [illegible] guez zijoan eta lagun Santiago [illegible] neraman. Azkenengo au il da [illegible] zan. Eskolako aurretan bat il da [illegible] zun ea zauriluak ba dira morda[illegible] bat.

Ez omen zun egetan egiteko [illegible] nik Lopez orrek, len ere bein-edo[illegible] bere errua gaiski ibili izan [illegible] Orregatik zulka ta artu omen [illegible] egazkiña ta egazkoa egin.

Colegio Moderno du izena ikastola[illegible] eta bertako irakasle Tomasa de A[illegible] tio da.

LADISLAO RIEGER

Erri ordezkari elo aldun bezela ikusi bear gendusla ta geldi giñan ofengoan. Eslavar jatorrizko abenderrien arteko asmoak, matxinada trakalearen bidez lur jo zutenean, orduantxe asi zan Rieger gaztearen aldun izakera ta ordezkaritza jatorra nabarmentzen, Txekoak etzuten aldezle makala berenganatu. Rieger'ek aldun bezela egindako lana au da: latetxe arazotako gizon bezela egindakoa, O'connell illezkorrak, Westminster'ko latetxean egindakoakiñ erkatu dute jakintsu askok.

Len esandako matxinada au zakarrak itzali ziranean, Kaisalderri arteko nazio guzientzat, aieak zabal zituan latetxe bat iriki zan Viena'n.

Ungria bakarrik gelditu zan saletik kanpora ta bera... euren latetxea bereziki zutelako. Ainbat abenderritako aldun gizonak biltzen ziran latetxe ortan, Babel'ko torrean izan zan antzeko ele nasketa sortu zan. Txekoak ere beren gizonak biali zituzten, ta jakiña, oraingoan ere Palacky ta Rieger'ek tarteko bear zuten. Ebiabar iturburuzkoak etzuten iñondik iñora alemanez mintza nai latetxe ortan, ta «Borrocha» zeritzan jermandar batek, etxeko jazkerarekiñ kanpoan ongarritu naieko zarpailakiñ erkatu zituan.

Merezi bezelakoxe erantzun sorrotza jaso zuan Rieger'engandik.

Zuek zerate —zion— zeuen jazkeramota derrior ezarri nai diguzutenak. «Erritartasuna, indar aundiko eskubide done bat da, gizon bakoitzaren azkatasuna beregan zaitzen duan eskubidea bezin done ta aintzagarria. Emengo batzar onek, bere kemenez, Kaisalderri ontako, Eslavar, Italiar ta gañontzeko naziotako jendeak Alemanez itzegitera beartuko balitu, benaz ta gogotsu esaten dizutet, ni ez naiz agindu edo erabaki ortara makurtuko, ta guzia ez onek eta ez beste iñongo latetxeak, gizon bezela dagokidan eskubide ori eziñ lapurtu lezaidelako.

Asarre bizia ager nai diet, nere aberria iraindu dutenari.»

Gero berriro, nasketa ta matxinada tankerak sortu ziran, ta latetxe ori ezerestuta gelditu zan.

Rieger'ek etzerrizkion Austri latetxe ripean zitur zegoanik, ta atzerrira aldendurik, Frantzian bizi izan zan aldi batean, ta emen, Polako [illegible] ta beste abertzale [illegible] bait tratu izaten zi[illegible], erpetxe gogorrak ikertu be[illegible] zan zuan.

Gerozik Inglaterra'ra aldatu zan, ta an, bere aberriirako onuragarri izan go ziran lanak zirelakoan, yakintsu asko erazo zion bizi. Bereak dira gaur Bohemia'n alaiñ ezagunak diran «El Herreros» ta beste abesti batzuk, eta garai artantxe moldatutakoak gañera.

Andik puskabatera berriro aberriratu zanean, ta bi urte igaro zituanean ezko, Palacky'ren alaba batekiñ ezkondu zan, ta len beren abertzaletazun sendo ta sutsua alkarturik zeuden gizon auek, aldetzun gozagurri batez beiñ da betiko ustarturik geldi ziran. Sekulako samo bat izan zuten alkarren artean.

Ezundo baño gogotsuago lanari lotu zan, beraz erri jakintsa ta izakera agertzen zuan, amabi zati aundi[illegible] liburu ikaragarri bat argitaratu [illegible] Kober abertzale ospatsua zan [illegible] zati edo eidomos aberko ta [illegible] argitaldari.

Txeko errian egundoko argita[illegible] sortu zituan lan txalogarri onek.

—o—

1848'garren urtean, Francisco [illegible] zan ango enperadore, ta lege [illegible] bat jakin erazo zuan onek, «Kaisa[illegible] rriaren osamena—zuan bere iz[illegible] rua, ta bertan, «Reichsrat» edo [illegible] tze antzeko batzar etxe bat [illegible] berriro inguratu naziotak berta[illegible] eskubide osoa zuten, baña ordezka[illegible] koskorrarekin zeuden guzia, Al[illegible] nak berenganatzen zituzten ango [illegible] tarki guziak.

Baña... irakurle, auxe komeria! [illegible] re lantxoa gaur bukatzera e[illegible] oraintxen ere saill aundiak bear ni[illegible] ke, ta orixe ez dut nai ifiola.

Urrengo astean bukatuko dut pa[illegible] ran. Ordurarte ba.

BASAB[illegible]

Txomin Olano

Oso pozik irakurria det «Atar[illegible] yayoak ARGIA'ren aurreko zenba[illegible] ziona.

Guztiz bidezkoa esik, bear-bear[illegible] ere badala derizkiot Txomin aun[illegible] omenaldi ori egitia.

Ez det esaten aundia gorputzez [illegible] dalako, gure gorputzak ezer gutx[illegible] ra ta, baizik gogoz, biotzez d[illegible] aundia gure Txomin jatorra.

Nork ez du ezagutzen Txom[illegible] Abesbatza dala, euskal irratsaio[illegible] rala, antzerkia dutela edo... bere [illegible] durra dala, Gipuzkoa zear au e[illegible] tzen ez duan abertzale bat e[illegible] tzango.

Denen gañetik dute itza E[illegible] Abes-Batzakoak edo Eusko-Ga[illegible] koak; arrek, guztiok dakizute[illegible] eta onek euskel-irratsaioen e[illegible] lleg zan aldetik, Txomin Olano'ri [illegible] dioten sariagatik.

Ekin ba lanari, ta zuen agind[illegible] betetzeko emen gelditzen da po[illegible] zik.

AINOE[illegible]

Txomin Olano'r[illegible] gorasarrea

«Atarkazren» izlakia argitarat[illegible] ezkero asko ta asko dira arpideak [illegible] ta nola iriki bear diran galdetu [illegible] tenak. Gorasarre ori aurrera e[illegible] ko Batzorde bat sutuko da nos[illegible] Batzorde arek erabakitzekoak dira [illegible] tzeiada guziak. Datorren astean [illegible] ten berri eman-al izango degu no[illegible]

Dr. Arrieta

Sudur, eztarri ta belarrietako [illegible]

sendagillea

Prim kalea 19, 4.°

DONOSTIA